



## HERRIKO KONTSEILUAREN ERABAKIA ORTZAIZE HERRIA

### 2025eko azaroaren 4ko saioa

Bi mila eta hogeita bost urteko azaroaren 4an arratseko zortzietan biltzera deiturik, herri honetako Herriko Kontseilua frantses legeak behartu kopuruan bildu da, bilkuren ohiko lekuan Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza saioko lehendakari izanik.

**Presente ziren:** FALXA Odile, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

**Ahalordeak:** DACHAGUER Peiok LEKUMBERRY Xantxori

**Ezin etorriak:** AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, HEGUY Antton, GOICOECHEA Iñaki

**Saioko idazkaria:** FALXA Odile

Deialdiaren data: 2025eko urriaren 31a

Afixatze data: 2025eko urriaren 31a

### **4. ERABAKIA: EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOKO ESKUALDATU GASTUAK EBALUATZEKO TOKIKO BATZORDEAREN (EGETB) 1. ETA 2. TXOSTENEN ONARTZEA**

Lurralde Elkargoen Kode Orokorren arabera;

Zergen Kode Nagusiaren arabera, eta bereziki 1609 nonies C artikulua;

Elkargoko Kontseiluaren 2020ko uztailaren 31ko deliberoaren arabera, Euskal Hirigune Elkargoko Eskualdatu Gastuak Ebaluatzeako Elkargoko Tokiko Batzordearen (EGETB) osaketa finkatzen duena,

Euskal Hirigune Elkargoko lehendakariaren 2025eko ekainaren 2ko erabakiaren arabera, EGETBeko kideen zerrenda berritzen duena;

EGETBk 2025eko irailaren 17an finkatu 1. eta 2. txostenen arabera, Lan Eremuei (LE) eta Interes Orokorreko Bideei (IOB) dagozkien kargen eskualdatzeen ebaluazioei buruzkoa;

Txostengilearen aurkezpena entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak:

- onartu ditu EGETBren 2025eko irailaren 17ko 1. eta 2. txostenak, honi atxikiak direnak;

baimendu du jaun/andere auzapeza beharrezko urraspideen egitera deliberamendu honen aplikatzeko, baita ere afera horri doakion dokumentu oro izenpetzera

Jardunean diren kideak: 15

Presente direnak: 8

Adierazi diren bozkek: 10 (9 presente eta ahalorde 1)

ALDE: 10

KONTRA: 0  
ABSTENTZIOA: 0

Gorago zehaztu urte, hilabete eta egunean deliberaturik. Presente ziren kideek erregistroa izenpeturik. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZE, 2025eko azaroaren 13an  
Auzapeza:  
Auzapeza Jean-Marc OÇAFRAIN

Honako akta indarrean izanen da,  
2025eko azaroaren 13an argitaratu edo jakinarazi ondotik  
eta egun berean suprefekturara igorri ondotik.